

GIZA TALDEA

Prestakuntza eta garapen profesionala

Langileen prestakuntzari eskaintzen diogun arretak pertsonen ezagutza, gaitasun eta trebetasunaren bereganatzea eta eguneratzea erraztu nahi ditu, enpresak bere egindako estrategiari zein erronkei erantzuteko.

2009ko Prestakuntza Planak 248 prestakuntza ekintza izan ditu, eta bere kostua 123.734,54 eurokoa izan da. Prestakuntza ekintzak enpresako departamentu eta zentro guztietan egin dira, kolektibo profesional ezberdinen beharrei erantzuten dizkieten edukiak jorratuz. Tripartita Fundazioak 2009ko Prestakuntza Planerako eman digun diru-laguntza 22.723,90 eurokoa izan da.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak antolatutako ikastaroetan parte hartzen segitu dugu, gehienbat ofimatika-prestakuntzarako, hala nola Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak sustatutako ikastaroetan

2006-08/09 aldirako Hitzarmena: prestakuntza programak

prestakuntza programak	xedea	baldintzak
Prestakuntza beharren I. programa	Langilea berak egiten dituen lanetan edo bere lanpostuko berrikuntza zein proiektuetarako gaitzera zuzendutako prestakuntza ekintzak dira	Enpresak bere egiten ditu kostu zuzen guztiak eta lan-jardunaldian egiten dira
Prestakuntza laguntzeko II. programa	Promozioetara aurkeztu daitezkeen langileei gaitasuna emateko prestakuntza ekintzak, barne prestakuntzan lor daitezkeen mailetan.	Enpresak irakasleak, lokalak eta materiala ordaintzen ditu. Lan-jardunalditik kanpo egiten dira eta denboraren truke ez dago ordainik
Interes pertsonaleko III. programa	Erabilgarritasun profesionalaren ikastaroak, langilearen lanpostuarekin erlazio gabekoak, baina jarduera profesional batean aritzeko gaitasun ofiziala eskaintzeko modukoak.	Enpresak gastu zuzenen %75 ordaintzen ditu, testu liburuak barne, 600 euro/pertsona/urte gehieneko muga delarik. Erakundearen jardueretik erlazorik ez badago, edo txikia bada, %25 ordaintzen da

Euskararen sustapena	Euskara ikastearen sustapena, bere kultura balio bereziarengatik eta indarrean dagoen legediarekin bat	Gehieneko muga 600 euro/pertsona/urte da eta ordain gisa orduak ematen dira, Enpresa Batzordearekin adostutako baremoaren arabera.
-----------------------------	--	--

Interes pertsonaleko programa gure 8 langilek baliatu dute, honako arlo hauetan: oinarrizko ikasketa zenbait, unibertsitate ikasketak, profesionalak eta ingeles hizkuntza. Bestalde, 10 pertsonak jaso dituzte euskara ikasteko laguntzak.

DATU NAGUSIAK LANGILEEN PRESTAKUNTZAN

	2006	2007	2008	2009
Prestakuntza ekintzen kopuru osoa	177	220	247	248
Bertaratze kopurua, guztira.	737	906	1.056	1.163
Bertaratze ordu kopurua, guztira.	7.406	8.812	9.634	11.480
Emandako lan orduak, guztira	7.356	8.762	9.584	11.390
Prestakuntza ekintzen kostu zuzena	112.954	128.566	123.550	123.735
Lan orduen kostua	152.716	165.320	208.016	283.033
Kostu osoa (kostu zuzena+lan orduak)	265.670	293.886	331.566	406.768

LANGILEEN PRESTAKUNTZAREN ADIERAZLEAK

	2006	2007	2008	2009
Prestakuntza orduak langile eta urte bakoitzeko	16,46	19,05	19,90	23,53
% prestakuntzan aritutako langileak, langile kopuruaren batez bestekoari erreparatuta	70,66	81,33	77,43	78,03
% lan orduak, bertaratutako ordu guztiei erreparatuta	99,32	99,43	99,48	99,22
% prestakuntzarako inbertsioa, soldata-masari erreparatuta	1,73	1,87	1,95	2,54

Azkenik, praktika profesionalak sustatzeko Nafarroako hezkuntza instituzioekin adostutako hitzarmenen baitan, gurean lanbide heziketako edo unibertsitateko 6 ikasle aritu dira praktika profesionaletan.